



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2020. urtea

60. zenbakia

**BEREZIA**

**Ostirala, martxoaren 20a**

A U R K I U B I D E A

ORRIALDEA

**1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA**

**1.1. XEDAPEN OROKORRAK**

**1.1.3. Foru Aginduak**

- 130/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, neurri prebentiboak eta gomendioak hartzen dituena oinarritzko gizarte zerbitzuetan (OGZ), gizarte zerbitzuen zentroetan (GZZ), gizarteratze eta laneratze taldeetan (GLT), haurrei eta nerabeei laguntzeko taldeetan (HNLTL), genero indarkeriaren biktimei osoko arretea emateko taldeetan (GIBOAT), etxebizitzaren esparruko gizarteratze taldeetan (EGT) eta etxegabeendako harrera zerbitzuetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak dirauen bitartean aplikatu daitezkeen. 3872
- 132/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, prebentzio neurriak eta gomendioak ezartzen dituena adinekoren, desgaitasuna dutenen eta adingabeen esparruan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak irauten duen bitartean. 3873

**1.7. BESTELAKOAK**

- ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 18an hartua, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikuluan aipatzen diren zorpetze-eragiketarak egitea xedatzen duena, 318.500.000 euroko muga gainditu gabe. 3874
- 20/2020 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Garraioetako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat. 3875

# 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

## 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1.3. Foru Aginduak

**130/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, neurri prebentiboak eta gomendioak hartzen dituena oinarrizko gizarte zerbitzuetan (OGZ), gizarte zerbitzuen zentroetan (GZZ), gizarteratze eta laneratze taldeetan (GLT), haurrei eta nerabeei laguntzeko taldeetan (HNL), genero indarkeriaren biktimei osoko arretea emateko taldeetan (GIBOAT), etxebizitzaren esparruko gizarteratze taldeetan (EGT) eta etxebizitzaren harrera zerbitzuetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak dirauen bitartean aplikatu daitezten.**

#### ATARIKOIA

Osasunaren Munduko Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, nazioarteko pandemia deklaratu zuen COVID-19ak osasun publikoan eragin duen larrialdi egoera. Espainian, egoera horri erantzuteko, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman da, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko baita COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak gizarte zerbitzuen sistema arautzen du, eta haren xede nagusia da populazioaren gizarte ongizatea lortzea, gizarte zerbitzuez baliatuzko eskubide unibertsala bermatuz. Orobat, xedatzen du bermatu behar dela zerbitzu horiek pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi-kalitatea ziurtatzeko baldintzarik hobereenak dituztela. Artikuluz artikulu, bada, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren nondik norakoak jasotzen ditu, prestazio teknikoak, ekonomikoak eta materialak zehaztuta.

Egun bizi dugun testuinguruan, beharrezkotzat jotzen da hainbat gomen-dio finkatzea gizarte zerbitzuen funtzionamendu egokia ahalbidetzeko eta, halaber, pandemia honen hedapenari aurrea hartzeko eta gizarte zerbitzuek artatzen dituzten herritarrek jasan ditzaketan ondorioak arintzeko.

Horiek guztiak horrela, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakari-ari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 14.1 e) artikuluan ezarritakoaren babesean,

#### AGINTZEN DUT:

##### 1. Neurri eta gomendio orokorrak.

1.–Langileek zorrozki bete beharko dituzte koronabirusaren hedapena kontrolatzea eta murriztea helburu duten babes neurriak. Beren burua babestu beharko dute beren jardunean duten arrisku mailaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentziorako zerbitzuek ezartzen dutenari jarraikiz.

2.–Bat-batean agertutako arnasketa-sintomarik izanez gero (eztula, arnas zailtasuna edo > 37,8°-ko sukarra), langileak ez dira joanen beren lanpostura eta familia-medikuarekin jarriko dira harremanetan, banakako balorazioa egiteko, beren lan-jardueran segitzea egokia den ala ez, aurreko 14 egunetan arriskuko tokiren batean egon direnean, toki horietako egoera eguneratua egiaztatzeko behararekin, edo kasu baieztaturaren batekin harreman estua izan dutenean.

3.–Eskuen higieena, urruntze soziala eta agindu diren arnas neurriak dira infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri nagusiak.

4.–Eskuen maizko higieena gauzatu beharko da garbitzeko teknika egokia baliatuz, erabiltzaileekin harremana izan eta/edo gainazalak ukitu aurretik. Eskularruak erabiltzeko ez du salbuespen eskuetan behar bezalako higieena aplikatuz, horiek erantzi ondoren.

##### 2. Oinarrizko gizarte zerbitzuendako neurriak.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuekin batera, funtsezko zerbitzutzat jotzen dira COVID-19 gaitzak sorturiko osasun krisiari aurre egiteko.

Oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak, osasun arloko profesionalekin batera, egoera ahuleneko pertsonen informazioa eta arretea emateko lehen maila osatzen dute, eta haien lana beharrezkoa da koronabirusaren zabalkundea geldiarazteko eta osasun krisi honen ondorioz zuzenean sortzen diren ahultasun-egoera sozialei aurre egiteko.

1.–Bermatu eginen da oinarrizko gizarte zerbitzuen prestazioa, zentroan gutxieneko teknikari kopuru bat edukita, toki entitate bakoitzak erabakitakoaren arabera, eta bi metroko gutxieneko distantzia bermatuko da lanpostutik lanpostura eta profesionalen eta herritarren artean. Hori posible ez denean, toki entitateak beste antolakuntza neurri batzuk ezarri beharko ditu.

2.–Ahal den neurrian lehenetsiko da arretea telefoniko edo telematikoa, behar-beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesturik. Oinarrizko gizarte

zerbitzuaren harremanetarako telefonoak eta arretea emateko ordutegiak emanen dira aditzera, ongi ikusteko moduko toki batean jarriz eta toki entitate bakoitzaren webgunean argitaratuz.

3.–Behar-beharrezkoa den egoeretan baino ez dira eginen etxeko bitak, eta, orduan, gomendatu diren arretazko higie-neurriak hartuko dira. Etxeko bisitaren aurretik, telefonoz jarriko dira harremanetan, sukarra edo arnasketa-sintoma akutuak dituen eta baieztatutako kasuren batekin harreman estua izan duen jakiteko. Kasu positiboa bada edo ikertzen ari bada, dagokion osasun zentroari galdetuko zaizkio jarduteko protokoloa eta hartu beharreko babes-neurriak.

4.–Arretea berezia jarriko da bakarrik bizi eta laguntza emateko familiarik ez duten pertsonengan; halakoei jarraien telefonikoa eginen zaie.

5.–Bertan behera utziko dira programaturik dauden taldeko eta komunitateko jarduerak guztiak.

##### 3. Etxeko laguntza zerbitzuendako (ELZ) berariazko neurriak.

1.–Mantendu eginen da etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioa, salbu eta familiak behar den laguntza ematen duenean eta/edo ematen den zerbitzua utzi edo murriztea posible denean, betiere babesgabetasun egoerarik sortu gabe; laguntza pertsonalari emanen zaio lehentasuna.

2.–Toki entitate bakoitzak kontingentzia plan bat prestatuko du, zerbitzuaren prestazioa bermatzeko premia handiko egoeretan.

3.–Ahal den neurrian, saihestu eginen da etxe berean langileak txandaka aritzea, eta laguntza emaniko pertsonen eguneroko erregistroa mantenduko da.

4.–Kasu baieztatuetan, bizilekuan lehen aldiz sartu aurretik, langileek prestakuntza eta informazioa jasoko dituzte, eta norbera babesteko ekipamendu egokiak erabiliko dituzte.

5.–Eskubide Sozialetako Departamentuak Gizarte Zerbitzuen webgunean argitaratu eta eguneratuko du osasun alarmarekin eta etxeko laguntza zerbitzuarekin zerikusia duen argibide, abisu eta dokumentu oro, bai eta behar diren berariazko protokoloak ere, eta horiek guztiak etengabe eguneratuko dira inguruabarren arabera beharrezkoa den guztietan, eta halakoetan posta elektronikoz jakinaraziko da eguneratze bat izan dela.

##### 6.–Erabiltzaileei dagokienez:

a) Familia langileek esku higieena eta arnas higieena sustatuko dituzte artatutako pertsonengan, eta jakinaraziko diete haien etxeetan ahalik eta denbora gehien egon behar dutela, eta behar-beharrezkoak diren irteerak soilik utziko diete egiten.

b) Behaketa areagotuko da ea sintomarik agertzen den atzemateko, eta horien berri emanen zaio etxeko laguntza zerbitzuko arduradunari, zuzenean senitartekoekin edo osasun zerbitzuekin harremanetan jarri ahal daitezten.

c) Ohiko prozeduren arabera garbitu eta desinfektatuko da etxea, eta arretea berezia jarriko zaie eskuekin ukitzeko arrisku handiena duten azalerei (pikaportek, etengailuak, eskudelak, konketak...).

d) Etxeko bisitaren aurretik, telefonoz jarriko dira harremanetan, sukarra edo arnasketa-sintoma akutuak dituen eta baieztatutako kasuren batekin harreman estua izan duen jakiteko:

–Prozesuak ez badira susmagarriak baina arnas klinika badute, laguntza ematen den bitartean bai artatutako erabiltzaileak bai etxeko laguntza zerbitzuko langileak maskara kirurgikoa erabiltzea gomendatzen da.

–Kasu positiboa bada edo ikertzen ari bada, eta isolamendu-erregimenean badago eta arretea bere gain hartzen duen familiarren laguntzarik ez badu, dagokion osasun zentroari galdetuko zaizkio egoiliarrekin jarduteko protokoloa eta hartu beharreko babes-neurriak.

7.–Ministerioaren gomendioen dokumentu teknikoak: aurreko guztia, deusetan galarazi gabe Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak zabalduetako dokumentuetan ezarritako gomendio eta irizpideak (3.5 apartatuan aipatzen den moduan zabalduko dira horiek).

4. Honako zerbitzu hauendako neurriak: gizarte zerbitzuen zentroak (GZZ), gizarteratze eta laneratze taldeak (GLT), haur eta nerabeei laguntzeko taldeak (HNL), genero indarkeriaren biktimei osoko arretea emateko taldeak (GIBOAT), etxebizitzaren esparruko gizarteratze taldeak (EGT).

1.–Zerbitzua emanen dela bermatuko da, aurrez aurre eta goizetan, gutxienez bi teknikari bertan izanen direlarik ohiko ordutegian, eta telefonoz eta telematikoki, berriz, arratsaldeko ohiko ordutegian. Horretarako, txandak ezarriko dira langileen artean, ezinbesteko aurrez aurreko lana eta, orobat, arretea telefonikoa eta telematikoa bermatzeko.

2.–Lanpostuen artean eta profesionalen eta herritarren artean gutxienez bi metroko distantzia bermatu beharko da. Hori posible ez denean, entitate arduradunak beste antolakuntza neurri batzuk ezarri beharko ditu.

3.–Ahal den neurrian lehenetsiko da arreta telefoniko eta telematikoa, behar-beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesturik. Harremanetarako telefonoak eta arretarako ordutegiak emanen dira; telefono horiek ikusteko moduko leku batean egon beharko dute, eta, ahal bada, entitate bakoitzaren webgunean.

4.–Zentro edo zerbitzu horien ardura duen entitatea arduratuko da kolektibo kalteberen edo arrisku-kolektiboen artean lan egin behar duten langileei buruz behar diren erabakiak hartzeaz, langile horiek aurrez aurreko zerbitzua eman behar duten kasuetan.

5.–Bertan behera utziko dira aurrez aurreko hitzorduak, larrialdi egoeretan izan ezik, bai eta programatutako taldeko eta komunitateko jarduerak guztiak ere.

6.–Behar-beharrezkoak diren egoeretan soilik egingen dira etxeko bisitak, gomendatutako higie-neurriak harturik. Etxez etxeko bisitaren aurretik, telefonoz jarriko dira harremanetan, sukarra edo arnasketa-sintoma akuak dituen eta baieztatutako kasuren batekin harreman estua izan duen jakiteko. Kasu positiboa bada edo ikertzen ari bada, dagokion osasun zentroari galdetuko zaizkio jarduteko protokoloa eta hartu beharreko babes-neurriak.

5. Etxegabeendako harrera zerbitzuendako neurriak.

1.–Etxegabeendako 24 orduko harrera zerbitzuendako neurriak.

a) Bermatu egingen da zerbitzuaren prestazioa, egun guztian zehar gutxienez teknikari bat (1) egonik. Horretarako, txandak ezarriko dira langileen artean, zerbitzuaren estaldura 24 orduetan egon dadin bermatzeko.

b) Lanpostuen artean eta profesionalen eta herritarren artean gutxienez bi metroko distantzia bermatu beharko da. Hori posible ez denean, entitate arduradunak beste antolakuntza neurri batzuk ezarri beharko ditu, bai eta ohean banaketan eta guztiak erabiltzeko beste eremu batzuetan ere, jantokian, esate baterako.

c) Teknikariak esku higie-neurriak eta arnas higie-neurriak sustatuko dituzte erabiltzaileen artean, eta jakinaraziko diete zentroan egon behar dutela.

d) Behaketa areagotuko da ea erabiltzaileengan sintomarik agertzen den atzemateko; hala gertatuz gero, dagokion osasun zentroari galdetuko zaizkio aurrera eraman beharreko jarduketak eta hartu beharreko babes-neurriak.

e) Baliabidean alta berriak egitean, test labur bat egingen da, osasun egoera baloratzeko, eta tenperatura hartzen ahalko da baliabidean sartu aurretik. Sukarrik edo koronabirusaren gaitzarekin bat datorren beste sintomaren bat izanez gero, dagokion osasun zentroari galdetuko zaizkio jarduteko protokoloa eta hartu beharreko babes-neurriak.

2.–Etxegabeendako 12 orduko harrera zerbitzuendako neurriak.

Eten egingen da zerbitzuaren prestazioa; dena den, hori ez da eragozpena izan Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen neurrietarako, dela 24 orduko zerbitzuaren prestazioa bermatzeko, dela instalazio horiek erabiltzeko.

6. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ukitutako toki entitateei eta zerbitzuei igortzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 17an.–Eskubide Sozialetako kontseilaria, M.<sup>a</sup> Carmen Maeztu Villafranca.

F2004098

**132/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, prebentzio neurriak eta gomendioak ezartzen dituena adinekoen, desgaitasuna dutenen eta adingabeen esparruan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak irauten duen bitartean.**

#### ATARIKOA

Osasunaren Munduko Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, nazioarteko pandemia deklaratu zuen COVID-19ak osasun publikoan eragin duen larrialdi egoera. Espainian, egoera horri erantzuteko, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman da, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko baita COVID-19aren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak gizarte zerbitzuen sistema arautzen du. Haren 1. artikulua arabera, legearen xede nagusia da populazioaren gizarte ongizatea lortzea, gizarte zerbitzuei baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz. Orobat, xedatzen du bermatu behar dela zerbitzu horiek pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi-kalitatea ziurtatzeko baldintzarik hoberenak dituztela. Artikuluz artikulu, bada, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren nondik norakoak jasotzen ditu, prestazio teknikoak, ekonomikoak eta materialak zehaztuta.

Eguneko egoeran, bada, beharrezkoa da zenbait gomendio egitea, lagunduko dutenak adinekoei, desgaitasuna dutenei eta adingabeei zuzendutako zerbitzuek ahalik eta hobekien funtziona dezaten, eta, aldi berean,

pandemia honen hedapena prebenitu eta herritarrengan izan ditzakeen efektuak leunduko dituztenak.

Horiek guztiak horrela, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 14.1 e) artikuluan ezarritakoaren babesean,

AGINTZEN DUT:

1.–Adinekoei zuzendutako neurriak eta gomendioak.

1. Egoitza zentroak:

a) Egoitza zentroetarako bisitak eten egingo dira; salbuespen bakarra izango da erabiltzaileak bere senideen laguntza behar duela beharrezkotzat jotzea. Hori egoitza zentroak berak baloratuko du.

b) Egoiliar berriak hartzen jarraituko dute. Egoitza zentroak funtsezko zerbitzuak dira, eta, hortaz, pertsonentzako arretak bermatuta egon behar du. Zentroa sartu aurretik, ebaluatu beharko da pertsonak harrera egiten zaien unean arnas infekzioko sintomarik ote duten eta, orobat, arrisku faktorerik ez dutela. Arnasketa sintomarik izanez gero, ospitale zerbitzuetatik datozen kasuan, alta emateko txosten medikoa beharko da, eta etxebizitzetatik datozen kasuan, berriz, oinarrizko osasun laguntzan egingo da balorazioa.

c) Aldi baterako egonaldiak eta ahaideei atsedean ematekoak (aparteko kasuak izan ezik) bertan behera geratzen dira; suspertzeko egonaldiak, aldiz, mantenduko dira.

d) Ez dira hartuko beste egoitza zentro batetik datozen pertsonak.

2. Eguneko egonaldiak, eguneko zentroak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak:

Zerbitzu horiek bertan behera geratzen dira. Hala ere, etxean arretarik gabe gera daitezkeen kasuak artatzen direla ziurtatzeko, zentroek pertsona bakoitzaren egoera indibiduala baloratuko dute, eta behar diren laguntzak antolatuko dituzte; gainera, telefono bidezko jarraipena ezarriko dute erabiltzaile guztientzat.

3. Erretiratuak elkarteak:

Ez dute zerbitzurik emango alarma egoerak irauten duen bitartean.

2.–Desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako neurriak eta gomendioak:

1. Egoitza zentroak:

a) Bisitak eten egingo dira; salbuespen bakarra izango da erabiltzaileak bere senideen laguntza behar duela beharrezkotzat jotzea. Hori egoitza zentroak berak baloratuko du.

b) Ez da egoiliar berriak hartuko eta aldi baterako egonaldiak bertan behera geratzen dira, justifikatutako premia kasuetan izan ezik. Kasu horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak baimendu beharko ditu.

c) Egoitza zerbitzuetako erabiltzaileak ezin izango dira atera beren etxera joateko.

2. Esku-hartze Soziokomunitarioak taldea:

Aurrez aurreko arretari eusten zaio, ezpada pertsonen beste laguntza-modalitate batzuk behar dituztela.

3. Eguneko zentroak, eguneko egonaldietarako zerbitzuak, zentro okupazionalak eta errehabilitazio psikosozialerako zentroak:

Zerbitzu horiek, oro har, bertan behera geratzen dira.

Hala ere, etxean arretarik gabe gera daitezkeen kasuak artatzen direla ziurtatzeko, zentroek pertsona bakoitzak behar dituen laguntza baliabideak antolatuko ditu. Gainerako erabiltzaileei telefono bidez egingo zaie jarraipena.

3.–Neurriak eta gomendioak adingabeen zerbitzuen arloan:

1. Egoitzako harrera-programa:

a) Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren eskumenen barruan gerta daitezkeen neska-mutilen eta gazteen lekualdatze edo joan-etorrietan, bereziki zainduko dira horien inguruabar zehatzak, eta egon daitezkeen arriskuak ere arretaz ebaluatuko dira.

b) Erakunde laguntzaileek etengabeko komunikazioa izango dute Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzarekin, azaltzeko COVID-19aren egungo egoera nolako eragiten ari zaien programetako langileei, adingabeei eta familia erabiltzaileei.

c) Erantzukizunez jokatu da, eta uneoro jarraituko dira, oro har, osasun agintariak ematen dituzten gomendioak, arauak eta jarraibideak. Orobat, oinarrizko zuzentza printzipioa aplikatuko da, bereziki aurretiazko patologia izateagatik ahulena diren adingabeei dagokienez. Kasu bakoitza baloratuko da, inguruabar zehatzak kontuan hartuta, eta egoitzak eta entitate publikoak behar besteko koordinazioa eduki beharko dute.

d) Adingabeak ezinbestekoa denean soilik atera eta mugitu ahal izango dira. Ateratzekotan, garraio publikoaren ordez, lehentasuna izango du egoitzaren garraibide pribatuak.

e) Egoitzatik kanpoko pertsonen bisitak (egoitzan bizi diren adingabeen senideenak barne) bertan behera geratzen dira aldi batez. Halaber,

egoiliarrek ezin izango dira atera haiekin aurrez aurreko bisitak egiteko. Egoiliarrek senideekin harremanetan jarri ahal izango dira aurrez aurrekoak ez diren bitartekoak erabiliz.

f) Bisita bat edo irteera bat ekar dezakeen premiazko edozein egoera berezi egoitzako edo zentroko arduradun batek ebaluatu eta proposatu du, eta, hala badagokio, entitate publikoak baimendu beharko du. Salbuespenezko bisita horien kasuan, osasun agintariak ezarritako higiene neurriak jarraitu beharko zaie: ahalik eta gutxien ukitzea, eskuak sarri garbitzea, espazioak higienizatzea eta abar.

g) Ikastetxeak itxita dauden bitartean, txandak berrantolatuko dira, goizeko txandan ere adingabeen beharrei erantzuteko nahikoa hezitzaile daudela bermatzeko.

### 2. Familia-harrerako programa eta adopzio programa.

a) Atzeratu egingo dira, oro har, taldekako jarduera guztiak, bai eta ezinbestekotzat jotzen ez diren etxeko bisita, bilera eta jarduera guztiak ere.

b) Etxeko bisitak eta harrerako/adopzioko familiei arreta eman eta jarraipena egiteko hitzorduak kontaktu fisikorik ez dakarten bideen bitartez egingo dira: telefonoz, posta elektronikoz, whatsapp, bideokonferentzia bidez... Hori guztia familiekin kontaktuan jarraitzeko.

c) Aldi baterako etenda geratzen dira adingabeen eta senideen aurrez aurreko bisitak, bai eta bizikidetzak-gunetik kanpoko senideen etxerako joan-etorriak ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, entitate publikoak baimenduz gero.

### 3. Ebazpen judizialen betearazpena.

Barneratze zentroetan, oro har, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak ezarritako protokoloa aplikatuko da.

3.1. Neurriak egoitza zentroetan, ebazpen judizialak betearazteko (barneratze zentroak eta heziketa taldeko bizikidetzak zentroak).

Jarraian ageri diren neurriak hartuko dira, dagokien epaileari jakinarazita:

a) Aldi baterako eteten dira bisitak eta senideen eta egoiliarren arteko bizikidetzak hitzorduak, salbu eta entitate publikoak baimentzen dituen salbuespenezko kasuak.

b) Aldi baterako eteten dira aisialdiko talde-irteerak.

c) Aldi baterako eteten dira asteburuko baimenak eta baimen arruntak egoiliarrentzat.

d) Zentroan egiten diren jardueretan, men egin beharko zaie osasun agintariak ezarritako jarraibide eta gomendioei.

### 3.2. Ingurune irekirako eta eguneko zentrorako neurriak.

a) Aldi baterako etengo dira joan-etorriak eta talde-interakzioa dakarten jarduerak edo neurriak, baita egungo egoera eta murrizketak direla-eta bete ezin direnak ere, dagokien epaitegiari jakinarazita.

b) Aurrekoa gorabehera, eta ahal den neurrian, ingurune irekiko neurriak, oro har, telefonoz edo bestelako bide ez presentzialen bitartez betearaziko dira, dagokien epaitegiari jakinarazita.

c) Gainerako neurri eta programa administratiboak edo epaiketaz kanpokoak (bitartekaritza, hezkuntza jarraipena,...) aldi baterako atzeratuko dira, bitarteko elektronikoen bidez egin daitezkeenak izan ezik.

d) Eguneko zentroan Hezkuntza Departamentuko araudi bera aplikatzen da. Hortaz, itxita egongo da.

### 3.3 Neurriak haurrei eta familiari arreta emateko programetan.

Haurrei, nerabeei eta familiari beren ingurune soziokomunitarioan arreta emateko programa, zerbitzu eta taldeei eragiten diete neurriak:

a) Oro har, eteten edo atzeratzen dira haurrei, nerabeei eta familiari arreta emateko programen barnean egiten diren talde interakzio eta lantegi guztiak.

b) Familiekin eta adingabeekin aurrez aurreko harremana dakarten etxeko bisita guztiak etengo dira, ezpada kasuaren ardua duen taldeak beharrezkotzat jotzen dituela. Salbuespenezko bisita/elkarrizketa horietan, osasun agintariak ezarritako higiene neurriak zaindu beharko dira: ahalik eta gutxien ukitzea, eskuak sarri garbitzea, espazioak higienizatzea eta abar. Programa hauetan, ahal den neurrian, telefonoz edo bitarteko elektronikoen bidez emango zaie arreta familiei (posta elektronikoa, whatsapp, bideokonferentzia...). Helburua da harremanetan jarraitzea haiekin, eta bereziki esku-hartzean parte hartzen duten pertsona eta familiekin.

c) Eteten dira aurrez aurreko bilerak eta koordinazio saioak. Harremanetan egoteko, telefonoa eta bide telematikoa erabiliko dituzte.

d) Aldi baterako eteten dira bisitak eta programatutako trukeak familia elkartzeko guneetan (aparteko kasuak salbu). Eten horren berri eman beharko zaie lehenbailehen familiei eta dagozkien epaitegiei.

e) Bertan behera geratzen dira Familia Bitartekotza eta Orientabide Zerbitzuek egiten dituzten saio terapeutikoak.

f) Baimena ematen da behin-behinean itxeko adingabeentzako eguneko zentroa, haur eta hezkuntza zentrotan egin bezala.

4.–Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ukitutako toki entitateei eta zerbitzuei igortzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 17an.–Eskubide Sozialetako kontseilaria, M.<sup>a</sup> Carmen Maeztu Villafranca.

F2004101

## 1.7. BESTELAKOAK

**ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 18an hartua, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikuluan aipatzen diren zorpetze-eragiketak egitea xedatzen duena, 318.500.000 euroko muga gainditu gabe.**

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikulua xedatzen du Foru Komunitatearen zorpetzea mota hauetakoa izaten ahalko dela:

- Mailegu edo kreditu eragiketak.
- Zor publikoaren baloreen jaulkipena.
- Finantza tresnekiko bestelako eragiketak.

Halaber, aipatutako 13/2007 Foru Legeak 64. eta 66. artikuluetan xedatzen du Nafarroako Gobernuari dagokiola, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, zorpetze-eragiketak erabakitzea, baldin eta foru lege baten bidez baimendu badira.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, 13.4 artikuluan, ezartzen du autonomia erkidegoei kreditu eragiketak egiteko eta zorra jaulkitzeko Estatuak ematen dien baimenak kontuan hartuko duela aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak betetzea, Autonomia Erkidegoen Finantza-bideari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 14.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Halaber, 2/2012 Lege Organiko horren beraren azken xedapenetako hirugarrenaren lehen puntuan zehazten da ezen, bere foru araubidea dela-eta, legea Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dela Nafarroako Foru Erautza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoarekin bat.

Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeak aurrekontu ekitaldi bakoitzeko zorpetzearen muga ezarriko du. 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legeak 15. artikuluan ezartzen du baimena ematen zaiola Nafarroako Gobernuari zorpetze-eragiketak egiteko honako muga honekin: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpisektorea osatzen duten entitateen saldo bizia ez dadila izan 2020ko abenduaren 31n 2020ko urtarrilaren 1eko saldo bizia baino handiagoa, Europako kontuen sistemaren arabera (SEC 2010).

2020an mugaeguneratuko diren enpresa publikoen zorpetze-eragiketak (elkarte publiko eta pribatuekin batera) 30.105.350 euro egiten dute, eta muga-egun arruntak beteko dituzten Administrazio Orokorren eragiketak, 243.403.334 euro. Halaber, zor kitapenak aurreratzeke 45.000.000 euroko zenbatekoa aurrekusi da.

Mugaeguneratutako eragiketa horiek, Administrazio Orokorrenak eta enpresa publikoenak, kontsolidazio perimetroaren barruan berriz finantzatzeko ez dakar zorpetzearen igoerarik; ezta zor kitapenak aurreratzearen ondorioz berriz finantzatzeko ere.

Ministroen Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11ko bilkuran, baimena eman zion Nafarroako Foru Komunitateari epe luzerako maileguak formalizatzeke eta zor publikoa jaulkitzeko, muga 322.100.000 euro izanik.

2020an mugaeguneratuko diren beste zorpetze-eragiketa batzuk egin ahal izateko, beharrezkoa da hura ahalbidetuko duen erabaki bat onestea.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik,

### ERABAKITZEN DU:

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikuluan aipatzen diren zorpetze-eragiketak egitea, 318.500.000 euroko mugarekin. Kopuru hau beste bi kopuru hauen batuketa da: 30.096.666 euro, muga-eguna beteko duten enpresa publikoen eragiketak berriz finantzatzeko; 243.403.334 euro, muga-egun arrunta beteko duten Administrazio Orokorren eragiketak berriz finantzatzeko; eta 45.000.000 euro, zorren amortizazio aurreratuak berriz finantzatzeko.

2. Zorpetze-eragiketa berriek balio ahal izanzen dute Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorretako proiektu jasagarriak (berdeak edo sozialak) finantzatzeko.

3. Zenbateko horren barnean, gauzatzen diren baloreen jaulkipenek Nafarroako Zorren ohiko izendapena eta ezaugarriak izanzen dituzte, eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

4. Erabaki honetan jasotako finantza-eragiketarako, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren esku uzten dira Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 66.1 artikulua c) eta d) letretan aipatzen diren eskumenak, lege horren 66.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

5. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez, baloreen jaulkipenen baldintza guztiak eta gainerako finantza-eragiketen ituntzea zehaztuko dira. Horretarako, ahalmena ematen zaio aipatu kontseilariari erabaki hau betearazteko behar diren neurriak hartu eta ebatzenak eman ditzan.

6. Erabaki honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik beretik izanen ditu ondorioak.

7. Erabaki hau Idazkaritza Tekniko Nagusiari eta Ekonomia eta Finantza Zerbitzuari igortzea, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 18an.—Nafarroako Gobernuko kontseilari-idazkaria, Javier Remírez Apesteguía.

F2004124

**20/2020 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Garraioetako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.**

2020ko martxoaren 15ean, indarrean sartu da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko baita COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez.

Garraioetako zuzendari nagusiaren martxoaren 15eko 19/2020 Ebazpenaren bidez neurriak hartu ziren errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Ebazpen hori onartu ondoren, egiaztatu da pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzeak eta 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako hainbat arlotako euste-neurriek nabarmen murriztu dutela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumeneko errepidezko erabilera orokorreko bidaiari garraio publiko erregularren zerbitzuen erabilera.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da neurri berriak hartzea zerbitzu publikoen prestazioa benetako eskarira egokitzeko.

Hori guztia ikusita, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 14.2.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, Garraioen Plangintzaren eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak proposatu du administrazio honen eskumeneko errepidezko erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularren zerbitzuak % 75 murriztea alarma egoerak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, egunero joan-etorriko bidaia bat egiten dela bermatu beharko da kontzesio bakoitzean eta kontzesio tituluan baimendutako trafikoa guztietan.

Enpresa emakidadunek behar diren egokitzapenak egin beharko dituzte ebazpen honetan ezarritako ehunekoa betetzeko. Garraio zerbitzuak egokitzean, bermatu beharko da herritarrek beren lantokietara eta oinarriko zerbitzuetara joan ahal izatea, eta betiere lehenetsiko da goizeko lehen orduetako bidaiak eskaintzea.

Enpresa emakidadunek Garraioetako Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dute, 2020ko martxoaren 23a, astelehena, baino lehen, egiten diren zerbitzuen informazioa, % 75eko murrizketaren ondoren, emanen diren formatuaren eta jarraibideen arabera.

Enpresa emakidadunek % 75eko murrizketa-ehunekoa betetzeko egokitzapenak egin ondoren, behar den informazioa eman beharko diete zerbitzu horien erabiltzaileei.

14.2.g) artikuluan adierazitakoarekin bat, enpresa emakidadunek behar diren neurriak hartuko dituzte erabiltzaileak elkarrengandik ahalik eta

urrunen egon daitezten, eta ezin izanen dira bete ibilgailuko eserlekuen % 25 baino gehiago.

Hartutako neurrien inpaktua ebaluatu ahal izateko eta beste neurri batzuk ezarri behar diren edo ez aztertzeko, enpresa emakidadunek honako hauen berri eman beharko diote egunero Garraioetako Zuzendaritza Nagusiarri, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz: egindako zerbitzuak, zerbitzu bakoitzeko erabiltzaile kopurua, gertatu diren gorabeherak, eta beste edozein inguruabar, uste badute horren berri eman beha dutela.

Autobus geltokietan, zerbitzu horiek emateko ezinbestekoak diren jarduerak eutsiko zaie.

Horrenbestez, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organiko ezartzen duen urriaren 30eko 263/2019 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko 1. atalaren bidez emandako eskumenak erabiliz, eta Garraioen Plangintzaren eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak egindako proposamenari jarraituz.

**EBAZTEN DUT:**

1. % 75 murriztea erabiltzaile guztientzako hiriarteko garraio publiko erregularren zerbitzua, Administrazio honen eskumenekoa, alarma egoerak irauten duen bitartean.

Gutxienez ere, kontzesio bakoitzean, joateko bidaia bat eta itzultzeko bidaia bat egiten da egunero. Kontzesio tituluan baimentzen diren zirkulazio guztiak hartuko dira kontuan.

Enpresa emakidadunek behar diren egokitzapenak egin beharko dituzte ebazpen honetan ezarritako ehunekoa betetzeko. Garraio zerbitzuak egokitzean, bermatu beharko da herritarrek beren lantokietara eta oinarriko zerbitzuetara joan ahal izatea, eta betiere lehenetsiko da goizeko lehen orduetako bidaiak eskaintzea.

Enpresa emakidadunek Garraioetako Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dute, 2020ko martxoaren 23a, astelehena, baino lehen, egiten diren zerbitzuen informazioa, % 75eko murrizketaren ondoren, emanen diren formatuaren eta jarraibideen arabera.

Enpresa emakidadunek, % 75eko murrizketa-ehunekoa betetzeko egokitzapenak egin ondoren, behar den informazioa eman beharko diete zerbitzu horien erabiltzaileei.

2. 14.2.g) artikuluan adierazitakoarekin bat, enpresa emakidadunek behar diren neurriak hartuko dituzte erabiltzaileak elkarrengandik ahalik eta urrunen egon daitezten, eta ezin izanen dira bete ibilgailuko eserlekuen % 25 baino gehiago.

3. Enpresa emakidadunek honako hauen berri eman beharko diote egunero Garraioetako Zuzendaritza Nagusiarri, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz: egindako zerbitzuak, zerbitzu bakoitzeko erabiltzaile kopurua, gertatu diren gorabeherak, eta beste edozein inguruabar, uste badute horren berri eman behar dutela.

4. Autobus geltokietan, zerbitzu horiek emateko ezinbestekoak diren jarduerak eutsiko zaie.

5. Garraioetako Zuzendaritza Nagusiko ikuskapen zerbitzuek gainbegiratzeko ahalgo dute nola ari diren betetzen ebazpen honetan ezarritako neurriak.

6. Garraioetako Zuzendaritza Nagusiak beste neurri batzuk hartzen ahalgo ditu, ebazpen honetan jaso ez direnak, COVID-19ren ondoriozko egoeraren bilakaera zein den.

7. Indarrik gabe uztea Garraioetako zuzendari nagusiak martxoaren 15ean emandako 19/2020 Ebazpena. Ebazpen horren bidez neurriak hartu ziren errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

8. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

9. Ebazpen honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.

Iruñean, 2020ko martxoaren 18an.—Garraioetako zuzendari nagusia, Berta Miranda Ordoabás.

F2004120

Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Ezkirotz kalea, 20 bis, 31007 Iruña. Telefonoa: 848 42 12 50. Faxe: 848 42 12 40. bon@navarra.es

**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua. Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Nafarroako Aldizkari Ofiziala  
**Argitalpen egunak:** astelehenetik ostiralera, Nafarroako Foru Komunitateko jaiegunetan izan ezik  
**Tasak argitaratzeagatik:** Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legearen 35. artikulua

L.G. NA. 102-1990 • ISSN 2253-9654

Nafarroako Aldizkari Ofiziala